Honela deklinatzen dira hitzak **NORI kasu**an:

- **Mugatu singularra:** *Ume**ari** izozkia erori zaio.*
- **Mugatu plurala:** *Ume**ei** izozkia erori zaie.*
- **Mugagabea:** *Zer ume**ri** erori zaio izozkia?*

Aukeratu eta osatu esaldiak :

- Josebak … ipuina irakurri dio.

  a) semeari b) semeei c) semeri

- Hainbat … ez zaie gustatu gaurko filma.

  a) ikasleari b) ikasleei c) ikasleri

- Nire baserriko … artoa gustatzen zaie.

  a) astoari b) astoei c) astori

Honela deklinatzen dira hitzak **NOREN kasu**an:

- **Mugatu singularra:** *Irakasle**aren** giltzak.*
- **Mugatu plurala:** *Ikasle**en** giltzak.*
- **Mugagabea:** *Zer ikasle**ren** giltzak?*

Osatu esaldiak hitz hauekin: Ilargiaren, idazleren, Edurneren, zaldien.

– Gure … argazkiak ekarri ditut.

– Hainbat … liburuak erosi ditugu.

– Leihotik … argitasuna ikusten nuen.

– … loroa oso barregarria da.

**Markatu soilik NOREN kasuan deklinatuta dauden hitzak.**



Irene abeslaria da. Duela hamabost urte jaio zen, Portugaleten.

Gaztetxoaren ahotsa oso polita da. Izebaren ahizpak, hau da, amak, beti esaten zuen: "Alabaren ahotsa bikaina da. Egun batean abeslari ospetsua izango da".

Irenek hainbat pertsonaren arazoak aipatzen ditu abestien letretan. Jendearen bihotza hunkitzeko gai da Irene. Gaur egun, kontzertuak ematen ditu

Honela deklinatzen dira hitzak **NONGO kasu**an:

- **Mugatu singularra:** *Egunkari**ko** albistea.*
- **Mugatu plurala:** *Egunkari**etako** albisteak.*
- **Mugagabea:** *Zer egunkari**tako** albisteak?*

Osatu NOREN eta NONGO kasuak erabiliz.

**herritako** **baloien** **eskolako** **Autobusetako** **ikasleen**

– Ikasleek.......................... atea apurtu dute.

– Jokalaria ................................... atzetik joan da.

– Hainbat ................................ neskak pozik daude.

– .................................................. gidariek greba egin dute.

– Maisuak ................................ lanak zuzendu ditu.